

## Maiatzeko asteazkenetan, 'Kirol-hezitzailea eta kulturartekotasuna' ikastaroa eskainiko du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

2016/04/11

**Maiatzaren 4an hasita, eta lau asteazkenetan jarraian, 'Kirol-hezitzailea eta kulturartekotasuna' ikastaroa eskainiko du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Ikastaroa dago zuzenduta kirol zein hezkuntza esparruko profesionalentzat, eta **apirilaren 29ra arte dago aukera izena emateko.****

Ikastaroaren helburua da erantzutea kirol eta hezkuntzan jarduten dute profesionalak askotan dituzte zalantzak: zeintzuk dira kontzeptu gakoak kirol-hezitzailean? Zer hartu behar da kontuan testuinguru kultur anitzetan? Zein irizpide nagusi eduki behar dira kontuan esku-hartzean?

Metodologia parte-hartzaile eta praktikoa erabilita, honako **edukiak** izango ditu ikastaroak:

- Kirolaren paradigma hezitzaile eta parte-hartzailea: kirola denontzat.
- Kulturarteko paradigma: parte-hartzaile etorkinekin esku-hartzea, kulturarteko kompetentzien garapena, egokitze prozesua, jarrerak, alderdi sozioekonomikoak, estereotipoen eta gatazkaren kudeaketa.
- Esku-hartzearen oinarriak kulturarteko ikuspegitik kirol esparruan.

Eskolak euskaraz izango dira eta **Aretxabaletako campusean emango dira maiatzeko lau asteazkenetan** (maiatzak 4, 11, 18 eta 25). Aurrez aurreko eskola horiek arratsaldean izango dira, 17:00etatik 21:00etara.

Ikastaroaren prezioa 225 eurokoa da eta matrikulatzeak baditu zenbait abantail, esaterako, ikastaro hau egiten duenak geroago egin nahiko balu 2016-2017ko Kirol-hezitzailea aditu titulua, atal hau konbalidatututa izango luke eta ez luke ordaindu beharko. Gainera, ikastaroa ordaintzeko erabili ahal izango da Tripartita fundazioaren diru-laguntza.

### Informazio gehiagorako:

- Amelia Barquín (abarquin@mondragon.edu).
- Izaskun Uribealgo (iuribesalgo@mondragon.edu).
- Telf.: 943 71 41 57

Ikastaroaren eskuorria informazio guztiarekin (PDF).



Maiatzaren 4an hasita, eskolak emango dira lau asteazkenetan jarraian.